

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru intereseko inbertsio bezala deklaratu da Leitzako Torraspapel enpresa handitzea

Proiektua 34 milioi eurokoa da, eta, horri esker, produkzio-ahalmena eta paper termikoen eta metalizatuen sorta gehituko da

Asteazkena, 2017.eko uztailak 26

Nafarroako Gobernuak gaurko (asteazkena) bilkuran onartu du Leitzako Torraspapel SA enpresak produkzio-ahalmena eta paper termikoen eta metalizatuen sorta gehitzeko egingo duen 34 milioi euroko inbertsioa foru interesekoa aitortzeko erabakia.

Garapen Ekonomikoko Departamentuak ondorengoak nabarmendu ditu ekimen honetan: enpresak egingo duen inbertsio handia, enpresan enplegua finkatzea, eskualdean izango duen inpaktu ekonomikoa, produkzio-ahalmena areagotzea kontsumo berriko materialetan, balio erantsi handiagoko produktuak sartzea eta instalazioaren produktibitatea eta lehiakortasuna gehitzea.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak foru intereseko inbertsio bezala deklaratu ditzakeela Foru Komunitateko garapen ekonomiko, sozial edo lurralderako garrantzi berezia duten proiektuak. Izendapen hori lortzen duten ekimenek lehentasunezko eta premiazko bultzada izaten dute ondoren, Nafarroako administrazio publiko guztiekin egin beharreko izapide ezberdinetan. Era horretan, esate baterako, erdira murrizten dira jarduera ezartzeko, hirigintza-plangintza egiteko edo gauzatzeko, irekitzeko edo funtzionamendurako lizentziak izapidetzeko aurreikusitako epe arruntak.